

NOS[YO]OTROS

José Ángel Artetxe

Bat. Subjektuarekiko interesa ez da ahuldu Descartesek Filosofiaren modernotasuna ekarri zuenetik. Nahiz gai gisa, nahiz forma gisa (izaki bizi), gure egunetara arte iritsi da norbere esperientzien sortzaile izaeran oinarriturik, zeinaren bidez izaten baititu harremanak munduarekin eta eraikitzen baitu bere burua. «Subjektibitatearen kritikoen» artean, Michel Foucault –jakite egituren eta botere harremanen joko batera murriztu ondoren «gizakiaren heriotza» iragarri baitzuen– ikuspuntu etikotik ezinbestekoa zela ohartuko zen. Kotsolamendurik eta berrerosketarik gabe orainari aurre egiteko Nietzsche-ren mezua berriz hartuz, besterik gabe gizatiarra izateko gizakia gairatzeko beharra aldarrikatu zuen.

«Norberaren ezagutza» Michel Foucaultek esango lukeen bezala, nahi-taezkoa eta atzeraezina da gaur egun. Eta, hala ere, gogoan izan behar dugu gizakia dela bere buruarentzako lehendabiziko arrotza eta bere nahi intimoenen etsai handiena. Edipoar eginahaleko problematika honetan kokatzen da Juan Carlos Meanaren azken lana.

Subjektua mundura ateratzen da, han egon behar du eta han mugitu behar du, oraina eta haren zehaztapenak onartu behar ditu, nahiz eta ezer nahikoa edota erabat berea ez izan. Ez betebeharrak gisa, norbanakoaren egoera bat den zerbaiten eran baizik. Bizitzaren eta norbere autodeterminazioaren aldarrikapena da. «Bizitzea» «jasa-tea» baino gehiago den *bizitako bizitza* baten baldintza gisa. Eta edukiei begiratuz, datorkigunari begiratuz, baina erabat entregatu gabe eta gauzetan harrapatuta edota identitateetan hertsatuta geratu gabe. Bidea aurkituz joatea da kontua, berez, bidaia horretan zehar eginez doan etxe batera itzultzea. Egiaz, gauzak eta egoerak diren xehetasunetan egoeretan, ordenetan, munduetan luzatuz joatea izango da bizitzea. Baina haietako bakar batek ere harrapa gaitzan ez uztea ere bada bizitzea; aitzitik, haietan hondoa ukitzea izango da.

«Subjektua ez da agerian jarri beharreko funts bat, eraiki beharreko nortasun bat, artificio bat baizik»; hala dio Manuel Cruz-ek *Tiempo de subjetividad* liburuan. Eta horretarako zailtasun nagusi bat, ia kale itsu bat, nortasuna nazio(edo etnia)-nortasunera murrizteko eta nortasun-politikak finkatzeko zoritxarreko mania da. Balirudike, esate baterako, europarra izatea *va de soi* eta gauza bera esan genezake norbanakoaren antzinako eskualde edo nazionalitate batzuekiko loturaz ere. Bi maila horiek, alderagarriak baina desberdinak, berezkoak ditu pertsonak. Iraganaren eta orainaren arteko norbere ekuazioekiko bat-etortze sakonak dira, inguratzen gaituen eta parte hartzen dugun gizarte konplexuarenetik bereizezinak. Susmatutako aberastasunak, zeinahi azalpen analitikori beti uzkur. Hala, azalpen oro azalekoa izango da, sinplifikatzailea eta, batez ere, alferrikakoa parte-hartze horretan bere burua substantziakide gisa ezagutzen duenarentzat; formulatzeko zehaztasuna arrotzaren ezaugarria da, berriz, eskualdearen edo Europaren fenomenoari kanpotik begiratzen dionarena (ez al da hori Peter Handke-ren *Die Angst des Tormanns beim Elfmeter* (1970) nobelaren protagonistak agerian uzten duena? Edota, are gehiago, Meursaultek, bereen artean beste «arrotz» batek Albert Camus-en *Arrotza* (1942) nobelan?). Bi maila dira, barrutik, aldiberekotasunean biziz gero, batera existitu eta elkarren gainean jar daitezkeenak, baina aldi berean, biek Nazio-estatu batekoa edota ideologiek zein –toki eta une jakin batzuetan– terrorismoek bultzatu eta eutsitako nazionalitate batekoa izatearekin kontraste handia egiten dute.

Gizakiaren arma sinplifikatzaile boteretsuen eta eraginkorrena da nazionalismoa. Urteetan zehar baliabide gehien duena da (hizkuntza bakana, derrigorrezko eskola, kuartela, alderdi politikoa, gerra, komunikabideak, heriaren historiaren interpretazioa, nazio-literaturaren kontzeptua...). Pertsonaren gainean diharduen presio sozial sorta bat, hura moldatuz, zizelkatuz, bakantasun esplizitu eta hegemoniko batera murriztuz. Dimentsio anitzeko personak, *homo multiplex* dekoak –aldaezina ez, baizik eta gizakia askotarikoa den

unean edota hala dela dakienean edota, are hobeto, hartaranzko joera duenean– definizio sinple eta kolektibo bat onartu behar du hala. Bat batean lehentasuna hartzen du estatu-nazio planoak bertakoaren zein europarraren aldean, norbanakoak bere burua hautemateko irudi gisa eraiki duen «nortasun» horrekiko topaketan eta, batez ere, besteen aurrean, gizarte-klase, sexu, lanbide talde edo herritartasun kategoriekiko. Gizarte-presioak bultzatutako identitate pertsonalaren sentipena da. Nazionalismoa ez zen nazioaren garapen «naturalak» sortu, kontrara, Ernest Gellner-ek erakutsi zuen bezala nazionalismoak sortu zuen nazioa. «Identitatea kanpotik inposetzen da. Ez dit esaten nor naizen, eta ezta egiten dudanaren zentzua ere, baizik eta nor izan behar dudan eta nigandik zein portaera espero diren, zigorraren mehatxupean»; horra zer idatzi zuen Alain Tourainek *Pour la sociologie* liburuan. Ez da harrigarria gertatuko Amin Maaloufen tankerako batek *Les Identités meurtrières* izeneko saiakera bat idaztea. Pentsatu besterik ez dago XX. mendearen bukaeran 120 aberririk gabeko iheslari eta lekualdatu zebilela planetan batetik bestera, behartasunetik eta zapalkundetik ihesi. Ustez Giza Eskubideen Adierazpenaren subjektu abstraktuaren unibertsaltasuna ezin hobeki mamitzen zuten irudiak dira eta, azkenean, kontzentrazio-esparruetan aurkitu zirenak, horrexegatik hain zuzen ere, ez frantsesak, ez espainiarrak eta ezta persiarrak ere ez izateagatik. Nazio-estatuaren zutabeak errotik zalantzan jartzen dituzten iheslarien arazoa, zioen Hanna Arendt-ek, nazioarteko erakunde humanitarioen esku utzi ziren, giza-eskubideen garrantziari buruzko adierazpen errukiorretan eta erabakitzekeko instantzia subirano mailara igotako poliziaren eskuetan.

NOS[YO]OTROS erakusketan subjektuaren identitate problematikak jorratzen dira, Georges Bataille-ren eta Maurice Blanchot-en eragin intelektualetik et galeraren filosofiatik. Juan Carlos Meanak dioen bezala, «murgildurik gauden galerak elkartzeko gaitu».

Bi. Aspalditik, eskulturaren eta instalazioaren artean dauden forma-tiak eta materialak erabili ditu Juan Carlos Meanak bere lanetan. Behin eta berriz elementu jakin batzuk, haren iruditeria osatzen dutenak, erabiltzea izan da haren ezaugarria: eskaiolazko moldurak eta etxeko tresnak, banderadun eta banderarik gabeko makilak, ispiluak eta ikustea baldintzatzen edota eragozten duten beira-arak... , eta horren guztiaren emaitza itxura hauskor eta ezegonkorreko piezak dira, soilak eta isilak. Ezaugarri horiek zentzua hustutzeko poetika bat nabarmentzera garamatza haietan, soiltasun fisiko eta eraikuntzazkoan mamitua, Historiaren hondarren eta aberriaren epikaren eta aintzaren hondakinen aurkezpen modura. Horren ondoan, beste begirada batzuk, eta identitateak biluzten lagundu nahi duten beste gauzatze batzuk.

Askotariko gaiak jorratzen dituen lan bat: begirada ezagutzeko tresna gisa, sortze-prozesua eta Narzitsoren mitoa, subjektua, norbana-koaren identitatea eta identitate soziopolitika, boterea...

Meanak orain bere azken lanak erakusteko eskaintzen duen *NOS[YO]-JOTROS* erakusketan lehenago egindako hiru pieza daude, aurreko etapekiko lotura edo Ariadnaren hari gisa tenkatua. *Sin país* (2012) argazkia, *Faltan héroes para darle la vuelta al mundo* (2012-2018) eskultura eta *Confidencias del deseo* (2007) bideoa dira, *Después de Narciso* seriekoak, bitarteko eta tekniketara zabaltzearen adibide. Orain, haren lanaren ezaugarri diren kontzeptuzko parametroak eta elementu formalak sendoagoak dira.

«Meana estiloa»-k artistaren ohar-koaderno gisa jokatzen du, zeinean elkarrekin bizi baitira era guztietako forma, arrasto eta ideiak, haren proiektuak geruzadun palimpsesto gisa ikusaraziz. *NOS[YO]-JOTROS* izenburupean 2016tik aurrera egindako lanak aurkezten ditu. Eskulturak eta berreskuratutako edo aurrez egindako elemen-tuen instalazioak, oihal ziratuaren gaineko margolanak, argazkiak eta bideoak... guztiak objektuak edo arkitekturak, eraikitako gau-

zak direnak, eta ikuslearen begiradarekiko harreman bat sortzeko nahita kokatuak. Berez, aurretik finkatu gabeko noranzkorik gabeko elkarrekin lotutako korapilo gisa funtzaionatzen dute piezek.

Forma bakar batekin –formula bat marka personal gisa mamitzeko gai dena– identifikatua izateari uko egiteko modu bat da Juan Carlos Meanaren askotarikotasun hori. Aitzitik, entitate den artelanaren eta egia eztaba daezinak transmititzeko haren ezintasunaren aurrean, moldakortasun formala ibilbide bat egituratzen duen ideia baten mamitzea da. Gauzatzeak baino lehen iragate-lekuak hautatzeak prozesuaren elementua nabarmentzen duen diskurtso bat egiteko aukera ematen dio, eta eduki bat jartzen du agerian fetitxe autono-mo bat baino lehen.

Isipiluei (beren eginkizuna oztopatzen duen eran kokatuak) makilei (biluzik, erreta, erorita edota bandera hitsekin) eta eguneroko gauzei, beste batzuk gehitzen zaizkie orain, bitarteko eta diziplinen bilduma zabaltzeko: neurtzeko tresnak, bala-zorroak, xaboiak..., konnotazio garbiak dituztenak eta Juan Carlos Meanaren heldua-roko kaligrafia eratzen laguntzen dutenak.

Hiru. Erakusketa hau osatzen duten piezak sei serietakoak dira. Serie horiek ez dira diziplina, bitarteko edo erabilitako materialen araberako multzoak. Ezta haien gauzatze prozesuaren araberakoak ere. Erakusketa osoa *leitmotiv* bakar baten pean bateratu ordez, prozeduren zangalatrauak eta gainjartzeak hautematen dira haien artean; esan genezake elkarrekin gurutzatzen diren bilbeak gara-tzera iristen direla.

Pieza horietako bakar bat ere ez da laborategiko esperimentu iso-latu bat; guztiek orainari erantzuten diote eta Juan Carlos Meanak artelanaren, artxi-boaren eta sortze-prozesuaren artean finkatutako harremanaren berri ematen du sail bakoitzak.

– *Gatazken laborategia*

Laborategia saioak egiteko, esperimendatzeko edo zerbait lantzeko lekua da beti. «Laborategiko» esapidea mespre-tuzko eran erabili ohi da gehienetan: «artifizialki sortua».

– *Komunitatea*

Guztiona edo askorena denaren ezaugarria da. Herri bateko, eskualde bateko zein naizo bateko persona multzoa izendatzen du. Eta baita erlijio batekoak direnak ere.

– *Parte izatea*

Gauza baten eta haren gainean eskubidea duen baten arteko harremana da. Pertsona jakin baten jabetzakoa den gauza bat ere bada eta, beste adiera batean, kontrara, multzo, klase, talde edo komunitate baten parte izatearen egoera da.

– *Aseptikoak*

Neutrala, hotza, pasiorik gabea da aseptikoa. Asepsiarekiko guztia infekziorik gabea da, eta germetatik gordetzeko prozedura guztiak biltzen ditu, hala nola esterilizazioa.

– *Nartzisoren ondoren*

Nartzisoren mitoa konstante bat da Meanaren lanean. Ispiluak subjektibitate zatitzeko eta lekuz aldatzeko gailu gisa funtzionatzen du. Gure begiradaren ezintasuna erakusten digu, eta ikusleari, artistari eta piezari buruzko galderak egitera garamatza.

– *Usteak*

Zerbaiti baietz esatea eta harekin ados egotea da ustea; gertakizun edo albiste batez erabat fidatzea.

Juan Carlos Meanak «ikustearen alegoriak» diren estrategia erretorikoak eta ekoizpen-estrategiak darabiltza. Artea esatearen porrot gisa eta artista, bere adierazteko nahian, gehienez ere, hizkuntzaren adierazpen-egoerarengatik zalantza planteatzea lortuz. Beti eta nolana dela ere, zorrotasun kontzeptualeko eta forma anitzeko adierazpenen bidez, ideiak kudeatzen laguntzen dion inbentario faktiko batekin.